

Zoriona inposatu nahi digute

El Mundo del País Vasco, 1991-10-18.

Estatuaren oinarrizko legea den Konstituzioa erabili du Espainiak Hego Euskalerrria dependentzian 1839an sarrarazi ginduztenez gero giltza gisa. Alde batetik, jakinak diren muga nagusiak: Konstituzioaren barruan edozer da posible, eta Konstituzioatik kanpo, ezer ez. Hau garbi utzi digute. Halere, Lege hau arautzen duen artikuluen ulerkuntza oso hestu-zekena erakutsi digu gobernu sozialistak; normala da agintariak eta menpean hartu duenak ikuspegi ezberdinak izatea, gizalegezkoa ere bada hau, baina honetarako dago Auzitegi Konstituzionala, agintzen dutenen naguskeriak orekatzeko. Corcuera Ministrari sozialistak berezkoa duela erakutsia du lege aldetik herriak baino meharrago ulertzeko joera nabarmena; polizien eskubideak arduratzen dute gehien, ez persegituena eta keria hauei erantzunez, bakarrik utzi du oposizioak: batzuk aurka, besteak zurian bota, eta alde, berriz, bere partidua, PSOE. Badaki Barne Ministrariak zer nahi duen bere lana errazteko, baina herriak ere bai keria honek gizabidearentzat nolako arriskua sortzen duen ikusteko. Nahikoa izan behar zukeen, ba, oharpen honek gehiengoaren bakardade hutsean lege-zigor horren gogorkeria neurritz jaisteko bederen baino ez. Auzitegi Nagusiari zeharka begiratu eta epaile batzuei merezi dutena baino begirune gutxiagoz tratatu ditu. Parlamentuko gehiengo itsuaren uhinaren gainean dagoen arabera ari da, herriarena aspaldi murrizten hasia bada ere, azkenean matematikaren aginte demokratikoa ezartzen. Jokabide honetan ari dira sozialista espainolak aspaldidanik, erlijio berrietako katekista sutsuek bezain setati, guretzat nahi duten salbazioa ezarri nahiaz.